



2025eko urriaren 20an eman den kontseilu errektorearen akordio proposamenak

[*] OHIKO BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIA

2025eko azaroaren 15ean egin dadin, bidezkoa da Ohiko Batzar Nagusirako deialdia egitea. Ondorioz, Kontseilu Errektoreak, ahoz batez, honako erabakia hartu du:

ERABAKIAK:

I) Ohiko Batzar Nagusirako deia egitea 2025eko azaroaren 15ean, 11:15etan lehen deialdia, 11:45etan bigarren deialdia eta 12:00etan hirugarren deialdia, ondorengo gaitzerrendarekin:

1. Aurreko aktaren onarpena eta bi bazkide izendatzea akta onartzeko.
2. Giza-kudeaketaren azterketa eta 2024-2025 ekitaldiko kontuen onarpena, hala badagokio.
3. 2024-2025 ekitaldiko etekinen banaketa.
4. Erregimen ekonomikoari dagozkion estatutuzko xedapenak (finantzaketa iturriak, interesak, bazkide berrientzako sarrera kuota eta ekarpena, baso sailen seguruak...).
5. Kontseilu Errektorearen zatikako estatutuen arabera berritzea.
6. Bazkidetza berriak eta bestelako aldaketak bazkidetzan.
7. 2025-2026 ekitaldirako ekintza plana.
8. Eskumenen eskuordetzea.
9. Galderak eta eskaerak.

II) Deialdi honekin bat etorriz, honako erabaki-proposamen hauek ezarri dira batzarrean aurkezteko:



1. AURREKO AKTAREN ONARPENA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEA AKTA ONARTZEKO.

AKORDIOA:

"..... eta bazkideak, zeinak batzarrean baitaude, izendatzea batzar honetako akta onets dezaten presidentearekin batera, eta hirurek idazkariarekin batera, 15 eguneko epean sinatu dezaten."

2. GIZA-KUDEAKETAREN AZTERKETA ETA 2024-2025 EKITALDIKO KONTUEN ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

AKORDIOA:

2023-2024 ekitaldiko giza kudeaketa eta Kontseilu Errektoreak Batzar Orokorrean aurkeztutako 2023-2024 ekitaldiko Urteko Kontuak onestea.

3. 2024-2025 EKITALDIKO ETEKINEN BANAKETA.

AKORDIOA:

2024-2025 ekitaldiko hurrengo emaitzen banaketa onestea:

[emaitzen banaketa proposamena sartu]

4. ERREGIMEN EKONOMIKOARI DAGOZKION ESTATUTUZKO XEDAPENAK.

AKORDIOA:

"Sarrera-kuota eta nahitaezko ekarpenak eguneratzea 2025ko azaroaren 15etik aurrera sartzen diren bazkide berrientzat, harik eta hurrengo ohiko batzar orokorra egiten den arte; kuota barriak hauek izango dira:

[].

5. KONTSEILU ERREKTOREAREN ZATIKAKO ESTATUTUEN ARABERAKO BERRITZEA

AKORDIOAK:

I) Tantai Baso Jabe Kooperatibaren Estatutuen .

II) Zaintza Batzordeko kideak hurrengo pertsonak izendatu:

(Estatutuen 38.Bat artikuluan araututa dagoena kontuan izanda, *Hiru pertsona izendatuko dira*).



6. BAZKIDETZA BERRIAK ETA BESTELAKO ALDAKETAK BAZKIDETZAN

AKORDIOA:

2024-2025 ekitaldian Kontseilu Errektoreak onartutako bazkidetzen aldaketak berrestea, eta Kontseilu Errektorea azkenekoz bildu zenetik Batzar Nagusiarterainoko denboran emandako aldaketa onartzea.

7. 2025-2026 EKITALDIRAKO EKINTZA PLANA

AKORDIOA:

2025-2026 ekitaldirako Kontseilu Errektoreak Batzar Orokorrean aurkeztutako 2025-2026 ekintza plana onestea.

8. ESKUMENEN ESKUORDETZEA.

AKORDIOA:

Erretore Kontseilua Zuzenbidean behar den beste ahaldundu, Batzar Orokor honek hartutako erabakiak gauzatu daitezen, eta bereziki hondoko puntuetan:

- a) Hartutako akordioak gauzatzeko behar diren erabakiak hartzea —ekintzak gauzatzea eta gauzatze horretarako behar diren dokumentuak ematea barne—, erabakiak Euskadiko Kooperatiben Erregistroan eta beste edozein erregistrotan jasotzea, eta, halaber, notario aurrean agertzea eta behar diren eskritura publikoak ematea.
- b) Batzar Orokor honetako erabakiak argitu, zehaztu eta osatzea, eta dauden zalantzak argitzea, eta erabaki horiek gauzatzea edo idatziz jasotzea eragozten eta oztopatzen duten akats eta omisioak zuzendu eta osatzea.
- c) Aurreko ataletan organo honi emandako ahalmenak Kontseilu Errektoreko kide bati edo gehiagori eskuordetzea.

9. GALDERAK ETA ESKAERAK.